

GOBIERNO DE NAVARRA

PRESIDENCIA, ADMINISTRACIONES
PÚBLICAS E INTERIOR

ECONOMIA Y HACIENDA

CULTURA, TURISMO Y RELACIONES
INSTITUCIONALES

EDUCACION

SALUD

POLÍTICA SOCIAL, IGUALDAD,
DEPORTE Y JUVENTUDDESARROLLO RURAL, INDUSTRIA,
EMPLEO Y MEDIO AMBIENTE

FOMENTO Y VIVIENDA

SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

Nafarroak eta Zerga eta Finantzaketa Politikaren Kontseiluak gastu autonomikoa kontrolatzea dute helburu

Hala ere, Nafarroako Gobernuak proposamena egin du erreferentzia gisa Foru Erkidegoaren hazkuntza hartzeko, eta ez estatuarena

Martes, 26 de julio de 2011

Nafarroako Foru Erkidegoak Zerga eta Finantzaketa Politikaren Kontseiluak ezarri duen helburu ekonomiko bera du, hau da, gastu autonomikoa kontrolatzea. Horrek esan nahi du, dauden diru-sarrerak baino gehiago ez dela gastatuko. Foru Gobernuaren konpromiso espezifikoetako bat da hori, Juan Luis Sánchez de Muniáin kontseilari eledunak, gaur, asteroko saioan hartzen diren erabakien berri emateko egiten den prentsaurrekoan azpimarratu duenaren arabera.

Sánchez de Muniainek esan duenez, gai hori Zerga eta Finantzaketa Politikaren Kontseiluaren hurrengo bileran eztabaidatuko da. Datorren asteazkenean izango da, uztailaren 27an, eta Nafarroa gonbidatu dute gainerako autonomia erkidegoekin batera.

Nafarroak, bilera horretan, hazkuntza ekonomikoaren erreferentzia gisa autonomia erkidegoena eta, bereziki, Foru Erkidegoarena eta ez estatuarena (txikiagoa delako), hartzeko proposamena egingo du. Estatuko Barne Produktu Gordinaren (BPG) urte arteko hazkuntza % 0,8 da; Nafarroakoa, aldiz, % 2.